

# Euskararen erabileraren normalizazioa herri administrazioetan

## III. PLANGINTZALDIA (2003-2007)

### *Balorazio txostena*

2008ko urtarrila



# Euskararen erabileraren normalizazioa herri administrazioetan

## **III. PLANGINTZALDIA (2003-2007)**

### *Balorazio txostena*

2008ko urtarrila

# Aurkibidea

**orria**

0. SARRERA.....	6
1. ATALA: GALDETEGIAREN EMAITZAK.....	9
1.1 AZTERGAIAREN AURKEZPENA .....	9
1.1.1 Jasotako erantzunak .....	9
1.1.2 Hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila (HEEM).....	11
1.2 EUSKARA PLANAK .....	14
1.3 ARDURADUN POLITIKOEN EUSKARA MAILA.....	16
1.4 HIZKUNTZA PAISAIA .....	17
1.4.1 Errotulazioa .....	17
1.4.2 Tresneria.....	18
1.4.3 Papeleria .....	19
1.5 APLIKAZIO INFORMATIKOAK.....	20
1.6 HIZKUNTZA IRIZPIDEAK .....	21
1.7 KANPO PROIEKZIOA .....	22
1.8 BARNE ETA KANPO HARREMANAK.....	24
1.8.1 Telefono bidezko lehen hitza .....	25
1.9 KANPOKO HIZKUNTZA ESKAERA .....	26
1.10 ITZULPENAK.....	27
1.11 EUSKARA PLANIK DEFINITU EZ DENEAN.....	28
1.12 GALDETEGIKO EMAITZEN LABURPENA.....	30
1.13 GALDETEGIAREN ARABERAKO EGUNGO EGOERAREN BALORAZIOA .....	33
2. ATALA: EUSKARAREN ERABILERAREN BALORAZIOA EAE-KO HERRI ADMINISTRAZIOETAN .....	35
2.1 AMIA MATRIZEA.....	36
3. ATALA: ETORKIZUNERAKO LAN ILDOEN PROPOSAMENA .....	38
4. ATALA: IV. PLANGINTZALDIARI BEGIRA .....	46
ERANSKINAK.....	50
1. ERANSKINA: GALDETEGIA.....	50
2. ERANSKINA: GALDETEGIA ERANTZUN DUTEN ERAKUNDEEN ZERRENDA .....	61




## 0. SARRERA

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautu zen. Dekretu horren arabera, euskal herri administrazioetako hizkuntza normalkuntza prozesua hezurmami zedin, entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu behar zuen.

Dekretu horren 6. atalari jarraiki, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak plangintzaldi bakoitzaren amaieran balorazio txostena igorriko dio Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluari herri administrazioetan hizkuntza normalkuntza zertan den ezagutzera emateko. 2007ko martxoan, *III. Plangintzaldiaren balorazio txostenaren aurrerapena* aurkeztu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak; urte bukaeran aurkeztu den hau, aldiz, behin betiko txostena izango da.

*III. Plangintzaldiaren balorazio txosten* hau osatzeko, ezagutzari dagozkion datuak eguneratu dira; eta, azken atalean, *IV. Plangintzaldiari begirako gogoetak* txertatu. Hurrengo argitalpen batean emango dira jakitera *IV. Plangintzaldia* zedarrituko duten irizpide nagusiak.

Txosten hau osatzeko jarraitu den metodologiaren eskema hurrengoa da:



Txostena osatzeko bi ikuspegitatik egin da azterketa, alde batetik, emaitza kuantitatiboak aztertu dira eta bestetik, balorazio kualitatiboa egin da. Balorazio kualitatibo horretan, egungo egoeraren gainean hausnartzeaz gain, etorkizunera begira landu beharreko lan ildoak zehaztu dira.

**Azterketa kuantitatiboari dagokionez**, mugak egon dira administrazioetan euskararen erabilerari buruzko helburuak zein neurritan bete diren ezagutu ahal izateko. Alde batetik, administrazio guztiek ez dituzte erabilera planak definitu. Bestalde, erabilera planak definitu dituzten guztiek ere ez dituzte helburuak modu berdintsuan kuantifikatu. Entitate guztietan erabilera planak ezartzeko jarraitutako irizpideak ez dira beti berdinak izan eta batzuek entitate osorako plana egin badute ere, beste batzuk lehentasunezko ataletan eragitera mugatu dira. Horregatik, helburuen betetze maila aztertu ordez, hainbat aldagai identifikatu dira Administrazioan euskararen erabilera zenbaterainokoa den neurtzeko, eta aldagai horien gaineko informazioa eskatu da. Beraz, txosten honetan, EAEko herri administrazioetan erabilera planak zein neurritan dauden definituta eta zenbateraino aurreratu den bere ezarpenean baloratu da, hots, Administrazioan euskararen erabilera zenbaterainokoa den. Horrela, planik definituta ez dutenei ere galdetegia betetzeko eskatu zaie, bertako erabilera neurtzeko asmotan.

Informazio hori jasotzeko, galdetegi egituratu bat prestatu da. Galdetegia txosten honen eranskinean dago jasota. Administrazio bakoitzean, euskara teknikariak bete du galdetegia eta teknikaririk ez dagoenean, entitateak izendatutako langileak. Kasu guztietan arduradun politikoaren oniritzia ere eskatu da. Beraz, entitatearen onespenearekin jasotako datuak dira. Kasu batzuetan, entitateak erabilera planaren gainean egindako balorazio txostenak erabili dira datuak lortzeko.

Kontuan izanik administrazio guztien tamainak eta errealitateak ezberdinak direla, bost mila biztanletik gorako udalei datuak atalez atal/sailez sail ematea eskatu zaie eta atal/sail bakoitzeko galdetegi bat betetzea. Hortik beherakoetan, udal osorako galdetegi bat betetzea eskatu da. Dena dela, administrazio batzuetan, hala egitea ez zegokien arren, administrazio osoaren izenean erantzun dute eta ez dituzte atalkako ezberdintasunak egin. Txosten honetan, administrazio bakoitzerako egoeraren media bat atera da eta hori hartu da kontuan.

Kontuan izan behar da, kasu gehienetan, jasotako emaitzak ez direla neurketa zehatz baten ondorio izan, baizik eta galdetegia bete duenaren

pertzepzioaren ondorio. Kasuren batean, urteko balorazio txostena egiteko datu bilketan oinarritu dira, baina orokorrean, ez da horrela izan. Hala eta guztiz ere, kontuan izan behar da helburua ez dela egoeraren deskribapen zehatz bat egitea, baizik eta gaur egun Administrazioan euskararen erabilera planek duten egoeraren diagnostia egitea. Beraz, azken helburua, dauden gabeziak, arazoak eta alde positiboak identifikatzea da eta ez egoera zehatz-mehatz deskribatzea. Horregatik, benetan baliagarriak izango direnak txostenaren ondorioak izango dira.

**Informazio kualitatiboa jasotzeko** berriz, hainbat elkarrizketa egin dira euskara teknikari eta bestelako hainbat adituren artean. Era berean, egoeraren balorazioak egiteko hainbat lan talde ere sortu dira (langileen lan taldeak lurraldeka, euskara teknikarien lan mahaia eta politikariena). Jasotako informazio guztiarekin, balorazio txosten hau osatu da.

Txostena lau ataletan egituratu da:

**1. ATALA:** Galdetegian jasotako emaitzak bildu dira.

**2. ATALA:** Elkarrizketa eta lan taldeetan jasotako balorazio kualitatiboen arabera ondorioak jaso dira. Administrazio ezberdinetan euskararen erabilerak duen egoeraren diagnostia egin da. AMIA matrize batean laburbildu dira ondorioak.

**3. ATALA:** Egindako diagnosiaren arabera eta lan talde ezberdinetan jasotako ekarpenen arabera, etorkizunerako hainbat lan ildo proposatu dira.

**4. ATALA:** Azkenik, IV. Plangintzaldiari begirako hainbat gogoeta azaltzen dira.

## **1. ATALA: GALDETEGIAREN EMAITZAK**

### **1.1 AZTERGAIAREN AURKEZPENA**

Atal honetan galdetegia erantzun dutenen deskribapen orokor bat jaso da: erantzun maila eta erantzun dutenen oinarrizko ezaugarriak.

Datuen trataera egiteko, hurrengo hamar taldeetan banatu dira administrazioak:

1. Udalak eta hauen menpeko erakunde autonomoak
2. Mankomunitate, partzuergo eta eskualde mailako erakundeak
3. Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak
4. Jaurlaritza eta honen menpeko erakunde autonomoak
5. Arartekoa
6. Herri Kontuen Euskal Epaitegia
7. Lan Harremanen Kontseilua
8. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
9. Eusko Legebiltzarra
10. Euskal Herriko Unibertsitatea

#### **1.1.1 Jasotako erantzunak**

Administrazio bakoitzetik **jasotako erantzun kopurua** hurrengoa da:

Kodea	Administrazioa	Erantzun kopurua
1	Udalak eta hauen menpeko erakunde autonomoak	223
2	Mankomunitate, partzuergo eta eskualde mailako erakundeak	29
3	Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak	6
4	Eusko Jaurlaritza eta honen menpeko erakunde autonomoak	11
5	Arartekoa	1
6	Herri Kontuen Euskal Epaitegia	1
7	Lan Harremanen Kontseilua	1
8	Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	1
9	Eusko Legebiltzarra	1
10	Euskal Herriko Unibertsitatea	1
<b>Guztira</b>		<b>275</b>

Aipatu behar da **erantzun maila oso altua** izan dela. Udalen kasuan ia %90eko emaitza maila lortu da eta gainerako administrazioetako ere benetan altua izan da.


#### Udaletan jasotako erantzun maila lurraldeka

	Udal kopurua guztira	Jasotako erantzunak	Erantzun maila
Araba	51	38	%74,51
Bizkaia	111	98	%88,29
Gipuzkoa	88	87	%98,86
<b>Guztira</b>	<b>250</b>	<b>223</b>	<b>%89,20</b>


Administrazio guztietatik udalen taldea da denetan zabalena eta zabalena izateaz gain, talderik heterogeneoena ere bai.

Udalen kasuan, **lurraldeka** jasotako erantzunak hurrengo grafikoan adierazi den moduan banatu dira. Esan beharra dago, banaketa errealitatean lurralde bakoitzak duen adierazgarritasunaren oso antzerakoa dela.

Udalen banaketa lurraldeka



Galdetegiaren erantzun maila lurraldeka



### 1.1.2 Hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila (HEEM)

Derrigortasun indizeen arabera, erakunde bakoitzak bere egoera soziolinguistikoari egokitutako helburu mailakatu jakin batzuetara heldu beharra dauka. Era berean, hizkuntza eskakizunak derrigortasun indize horren arabera ezarri beharko ditu, baita horiek lortzeko epe muga ere, hau da, derrigortasun data (DD) ere.


Datuen iturriari dagokionez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aginduzko txostenak egiten ditu herri administrazioek onartzen dituzten lanpostu zerrenden inguruan. Datu horiek hartu dira oinarri, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzan ditugunak, beraz.

Derrigortasun data igarota duten hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila altua da. Orokorrean, derrigortasun data igaro zaien titularren %55,58k dagokion hizkuntza eskakizuna edota altuago bat egiaztatu du, eta beste %5,69k dagokiona baino maila bat baxuagoa. Ezer egiaztatu gabeak, berriz, %5,64 dira. Ikusten da lanpostuen %26,26 ez dagoela titularrez beteta, hala ere, lanpostu horietan ari direnek, orokorrean, egiaztatzen dute dagokien maila; kasu horietan, gainera, titularrez betetzen direnean egiaztatua beharko dute.

Bestalde, aintzat hartzen bada herri administrazio guztietan une honetan ari den langile oro, derrigortasun data ezarria izan edo ez kontuan hartu gabe, ikusten da euskararen ezagutzari buruzko datuak ere onak direla: %57,43k eskuratu du hizkuntza eskakizunen bat. Administrazio Orokorrari begiratuta, berriz, ikusiko dugu hizkuntzaren ezagutzari buruzko datuak zertxobait hobek direla oraindik: ia %60k, zehatzago esanda %59,74k egiaztatu du hizkuntza eskakizunen bat.

Datu horien arabera beraz, esan daiteke, batetik, **derrigortasun data igarota daukaten lanpostuetan, hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila altua dela**; eta bestetik, une honetan herri administrazio guztietan ari diren langileak oro har hartuta, **euskararen ezagutza ere altua dela: ia %58koa**.

### Derrigortasun data igarota duten lanpostuen banaketa hizkuntza eskakizunen egiaztatzeari dagokionean



Oharra: grafiko honetan titularren datuak hartu dira kontuan

Jarraian, egiaztatzeari buruzko datuak erakundeen arabera:

	Dagokien HE edo altuagoa egiaztatua	Mailarik egiaztatu gabe	HE - 1	HE - 2	HE - 3	Lanpostu hutsak	Salbuetsiak
Udalak	%56,74	%6,53	%6,73	%1,11	%0,15	%23,29	%5,45
Mankomunitateak	%52,76	%4,42	%4,70	%1,10	%0,00	%24,03	%12,98
Foru Aldundiak	%62,15	%5,06	%5,34	%1,02	%0,00	%21,37	%5,06
Eusko Jaurlaritza	%47,41	%5,00	%4,05	%0,80	%0,08	%34,87	%7,80
Eusko Legebiltzarra	%66,67	%7,58	%4,55	%1,52	%0,00	%19,70	%0,00
Euskal Herriko Unibertsitatea	%29,42	%0,72	%1,26	%0,00	%0,00	%67,33	%1,26
Herri Kontuen Euskal Epaitegia	%70,97	%0,00	%12,90	%0,00	%0,00	%9,68	%6,45
Lan Harremanen Kontseilua	%75,00	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%25,00	%0,00
Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	%28,57	%0,00	%0,00	%0,00	%0,00	%71,43	%0,00
Batez beste	<b>%55,58</b>	<b>%5,64</b>	<b>%5,69</b>	<b>%0,99</b>	<b>%0,09</b>	<b>%26,26</b>	<b>%5,74</b>


Oharra: Arartekoa Eusko Legebiltzarraren barruan barneratua dago.

HE-1: Dagokien hizkuntza eskakizuna baino maila bat baxuagoa egiaztatu dutenak

HE-2: Dagokien hizkuntza eskakizuna baino bi maila baxuagoa egiaztatu dutenak

HE-3: Dagokien hizkuntza eskakizuna baino hiru maila baxuagoa egiaztatu dutenak

### Herri administrazioetako langileen hizkuntza egoera (lanpostuetako azken okupantea)




Oharra: Datu hauetatik kanpo geratu dira langilerik ez duten lanpostuak (2.610, %8,81)

## 1.2 EUSKARA PLANAK

Atal honetan euskara planen egoera orokorra jaso da, hots, aztertutako erakundeetan planik egin den, hala bada, jarraipenik egiten ote zaion...

Azpiko grafikoak erakusten duen moduan, erakundeen erdiak gutxi gorabehera euskararen erabilera plan egituratu bat egin du. Horiez gain, aintzat hartu behar dira euskara plan egituratua ez izan arren euskararen erabilera normalizatzearen alde jardun duten erakundeak: lanpostuetako hizkuntza eskakizunak ezarri dituzte edota langileak euskalduntzeaz arduratu dira, baina ez dute horretarako erabilera plan egituraturik, eta, ondorioz, finkatu gabe dituzte barne harremanetako hizkuntza, kanpo harremanetako, kontratazio irizpideak... Hala ere, dudarik gabe, **kopuru esanguratsua da erabilera plana definitu duten erakundeena, eta esan daiteke EAEko administrazioetan azken urteetan aurrerapen handia eman dela**. Ezin da ahaztu gehiengoak azken 5-10 urteetan definitu duela plana. Aurrera begira noski, bada lanik, baina emandako aurrerapena garrantzitsua izan da.




Erakundeka, oso egoera ezberdinak agertzen dira. Udalen kasuan, gutxi gorabehera, udalen erdiek dute euskara plana definitu eta onartuta. Mankomunitateen kasuan, %30era jaisten da kopuru hori. Hiru Foru Aldundiek definituta dituzte beren erabilera planak, eta Batzar Nagusien kasuan, Gipuzkoak badu erabilera plana onartuta.

Eusko Jaurlaritzak ere plana onartua du, eta horrez gain sailez sail erabilera plan espezifikoak diseinatu eta onartzeko prozesua martxan jarri du. Hori horrela, une honetan, hamabi sail hauek ari dira beren berariazko plana garatzen: Lehendakaritza; Jaurlaritzaren Lehendakariordetza; Ogasun eta Herri Administrazioa; Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza; Herrizaingoa;

Industria, Merkataritza eta Turismoa; Etxebizitza eta Gizarte Gaiak; Osasuna; Kultura; Ingurumena eta Lurralde Antolamendua; Garraio eta Herri Lana; eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura. Esan bezala, aipatutako sailak berariazko euskara planaren diseinua egiten dabilta, eta, ondo bidean, aurreikus liteke uda baino lehen sailen erdiek onartua izango dutela euren erabilera plana.

Udalen kasuan, **lurraldeka**, ezberdintasunak nabarmenak dira. Gipuzkoa da udaletan erabilera plan gehien definitu dituen lurraldea, jarraian Bizkaia eta azkenik, diferentzia nabarmenarekin Araba gutxien definitu dituen. Azken honetan, askoz udal gehiago dira plana ez dutenak plana definitu dutenak baino.




Erabilera planei buruzko datuekin amaitzeko, erabilera plana egin dutenei **jarraipenik** egin ote dioten galdetu zaie. Datuak, jarraian: Foru Aldundi eta Gipuzkoako Batzar Nagusietan egiten da jarraipena, baina udaletan, erabilera plana egin dutenetatik %45ek egiten dio planari jarraipena. Mankomunitateen kasuan berriz, %10ekoa da soilik jarraipena. Beraz, lanik zailena egin den arren, plana diseinatzea, ez zaio beti behar bezalako etekinik ateratzen lan horri.

### 1.3 ARDURADUN POLITIKOEN EUSKARA MAILA

Arduradun politikoen euskara maila neurtzeko hizkuntzaren lau trebetasunetan nola moldatzen diren galdetu da: ulermenean, mintzamenean, irakurmenean eta idazmenean

Hurrengo grafikoan trebetasun bakoitzean ongi moldatzen direla adierazi duten arduradun politikarien ehunekoak jasotzen dira.



Ehunekoak oso antzekoak dira trebetasun guztietarako. Gutxi gorabehera arduradun politikoen erdiek dakite euskaraz. Datuek diotenaren arabera, badirudi ulertzeko garaian moldatzen direla ondoen. Orokorrean, idazteko garaian daude muga gehien.


Datu hauek baloratzeko, kontuan izan behar da entitate bakoitzak emandako erantzunetara mugatu garela.

## 1.4 HIZKUNTZA PAISAIA

Hizkuntza paisaiari dagokionean, errotulazioa, tresneria eta papeleriaren gainean galdetu dugu, hiru alor horietan zein hizkuntza erabiltzen den: euskara, gaztelania edo bi hizkuntzak.


### 1.4.1 Errotulazioa

Ia talde guztietan elebrietan dago errotulazio gehiena. Beraz, euskararen presentzia bermatuta dago. Euskaraz hutsezko errotulazioari dagokionez, udal eta mankomunitate batzuetan aurki daiteke zer bait; eta gaztelania hutsezkoa, berriz, %40tik gora Herri Kontuen Euskal Epaitegian. Gainerakoetan elebitasuna da nagusi.




<b>1</b>	Udalak eta hauen menpeko erakunde autonomoak	<b>6</b>	Herri Kontuen Euskal Epaitegia
<b>2</b>	Mankomunitate, partzuergo eta eskualde mailako erakundeak	<b>7</b>	Lan Harremanen Kontseilua
<b>3</b>	Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak	<b>8</b>	Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
<b>4</b>	Eusko Jaurlaritzaren eta honen menpeko erakunde autonomoak	<b>9</b>	Eusko Legebiltzarra
<b>5</b>	Arartekoa	<b>10</b>	Euskal Herriko Unibertsitatea

Euskara hutsean, batez ere, Gipuzkoan eta udalik txikienetan aurkitzen dira errotuluak eta nola ez, egoera soziolinguistikorik euskaldunena duten udaletan.




### 1.4.2 Tresneria

Tresneria aipatzean, kafe makina, fotokopiagailu eta abarri egiten zaio erreferentzia. Alor honetan gaztelaniaren presentzia handiagoa da aurreko kasuan baino eta tresna gutxi batzuk daude soilik elebrietan.




<b>1</b>	Udalak eta hauen menpeko erakunde autonomoak	<b>6</b>	Herri Kontuen Euskal Epaitegia
<b>2</b>	Mankomunitate, partzuergo eta eskualde mailako erakundeak	<b>7</b>	Lan Harremanen Kontseilua
<b>3</b>	Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak	<b>8</b>	Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
<b>4</b>	Eusko Jaurlaritza eta honen menpeko erakunde autonomoak	<b>9</b>	Eusko Legebiltzarra
<b>5</b>	Arartekoa	<b>10</b>	Euskal Herriko Unibertsitatea

Hemen ere, udalen artean, Gipuzkoa da, batez ere, euskara hutsean tresnaren bat duena, batik bat, 10.000 biztanletik beherako udaletan eta egoera soziolinguistikorik onena ematen den udalerrietan. Dena dela, orokorrean, gaztelania hutsean daude tresnarik gehienak.



### 1.4.3 Papeleria

Azkenik hizkuntza paisaiaren arloan, papeleria aztertu da.



<b>1</b>	Udalak eta hauen menpeko erakunde autonomoak	<b>6</b>	Herri Kontuen Euskal Epaitegia
<b>2</b>	Mankomunitate, partzuergo eta eskualde mailako erakundeak	<b>7</b>	Lan Harremanen Kontseilua
<b>3</b>	Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak	<b>8</b>	Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
<b>4</b>	Eusko Jaurlaritza eta honen menpeko erakunde autonomoak	<b>9</b>	Eusko Legebiltzarra
<b>5</b>	Arartekoa	<b>10</b>	Euskal Herriko Unibertsitatea

Hemen ere bermatua dago euskararen presentzia erakunde gehienetan, elebrietan aurkitzen baita ia papeleria osoa. Udal eta mankomunitateetan hainbat gauza aurkitzen dira euskara hutsean ere eta gainerakoan elebitasuna gailentzen da. Aipagarriak dira Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa eta Arartekoa. Horietan, oraindik, %40-%60 artean gaztelania hutsean aurkitzen baita papeleria.

Udalen kasuan, Gipuzkoa da, papeleria batez ere euskara hutsean duten udal gehien dituen lurraldea.


## 1.5 APLIKAZIO INFORMATIKOAK

Atal honetan euskaraz zenbat aplikazio informatiko dauden erabilgarri galdetu da eta era berean, zenbatean erabiltzen diren aplikazioak hizkuntza horretan. Galdera honetan jasotako erantzun maila oso baxua da eta beraz, edozein irakurketa kontu handiz egin behar da<sup>1</sup>.

3.028 aplikazio informatiko identifikatu dira guztira erakundeetan eta horietatik, 1.226 daude euskaraz erabilgarri, hain zuzen ere, %40.

Erabilgarri egotea, ordea, ez da nahikoa erabilera bermatzeko. Zentzu horretan, grafikoa benetan esanguratsua da. Aplikazio gehienak erabilgarri egon arren, gaztelaniaz erabiltzen dira, hainbat arrazoi tarteko; ulertzeko zailtasuna, ohitura, eta abar. Arartekoa da batez ere erabilgarri dauden horiek euskaraz erabiltzen dituenen, baina hemen ere, erabilgarri daudenetatik erdiak soilik erabiltzen dira euskaraz.

Udalen kasuan, Gipuzkoan erabiltzen dira gehien euskaraz, derrigortasun indizerik altuena duten udaletan. Biztanleriak ez du eraginik aspektu honetan eta herri txiki nahiz handiek, gehienez ere, %40tan erabiltzen dituzte euskaraz hizkuntza horretan erabilgarri dauden aplikazioak.



<sup>1</sup> Entitatean guztira zenbat aplikazio dauden erabilgarri galderari, %26k ez dio erantzun eta euskaraz zenbat aplikazio dauden erabilgarri galderari, %36k.

## 1.6 HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Atal honetan euskara erabiltzeko irizpideak, hizkuntza ofiziala den aldetik, argi finkatuta dauden ala ez aztertu da. Hurrengo taulan irizpide bakoitzak duen ezarpen maila jaso da.

### Irizpide bakoitzaren ezarpen maila

	Atal barneko erabilera irizpideak	Beste atalekiko erabilera irizpideak	Herritarrekiko erabilera irizpideak	Beste administrazioekiko erabilera irizpideak	Hizkuntza prestakuntza	Langileen etengabeko prestakuntza	Itzulpen politika	Erregistroa	Webgunea	Kontratazioa	Diru-laguntzak	Argitalpenak	Jendaurreko ekitaldiak	Iragarpenak
Bai	%36	%36	%62	%56	%40	%34	%51	%33	%45	%43	%43	%55	%52	%61
Ez	%46	%41	%24	%29	%29	%45	%32	%41	%29	%38	%37	%28	%33	%21
Ez dagokigu	%2	%6	%1	%1	%1	%6	%1	%3	%3	%3	%5	%2	%2	%1
Erantzun ez	%16	%17	%13	%14	%29	%16	%15	%24	%22	%15	%14	%14	%13	%17
Guztira	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%100

Gehienek **finkatuta dituzten irizpideak** hurrengoak dira:

• Herritarrekiko erabilera irizpideak
• Beste administrazioekiko erabilera irizpideak
• Itzulpen politika
• Argitalpenak
• Jendaurreko ekitaldiak (hitzaldiak, jardunaldiak,...)
• Iragarpenak (prentsa-oharrak, iragarkiak,...)

Irizpiderik gabeko alderdiak berriz hurrengoak dira, batez ere:


• Atal barneko erabilera irizpideak
• Beste atalekiko erabilera irizpideak
• Langileen etengabeko prestakuntza

Beraz, badirudi kanpora begirako irizpideak direla batez ere finkatuak daudenak, baina hauek ere, gehienez, %62tan daude finkatuak eta aldiz, erakunde barrukoak direnak, oraindik zehaztu gabe daude. Hala nola, atal barruko eta atalen arteko hizkuntzaren erabilera irizpideak.


## 1.7 KANPO PROIEKZIOA

Erakundearen kanpo proiektzioan euskararen erabilera zenbaterainokoa den aztertzeko, hurrengoak hartu dira kontuan: euskararen erabilera argitaratzen diren aldizkarietan, web orrietan eta egiten diren iragarpenetan.

Kanpo proiektzioan euskararen erabilera handia da: ia gehiena elebrietan aurkitzen da aztertutako hiru arloetan. Aldizkarietan %24 inguru gaztelania hutsean egiten dela irizten diote, web orrietan %17 eta iragarpenetan, %6 inguru. Datuak, beraz, positiboak dira. Dena dela, etorkizunera begira, garrantzitsua litzateke gaztelania hutsez argitaratzen diren horiei erreparatzea eta elebrietan eskaintzea.




Dena dela, erakundeen kanpo proiektzioan euskara bermatua badago ere, batez ere itzulpenetara jotzen da eta gaztelania izaten da sortze hizkuntza bereziki. Beraz, badirudi gaztelania dela oraindik lan hizkuntza nagusia. Hala eta guztiz ere, aztertu diren hiru alorretan, euskaraz kaleratzen denaren %10-20 artean euskara hutsean sortzen da.




Azkenik, kanpo proiektzioarekin amaitzeko, **jendaurreko ekitaldietan** erabiltzen den hizkuntzaren azterketa egin da, bai idatzizko komunikazioetan, bai ahozkoetan.

Bi kasuetan ere euskararen erabilera nahiko bermatua dago, idatziz ahozkoan baino gehiago erabiltzen bada ere.



## 1.8 BARNE ETA KANPO HARREMANAK

Atal honetan, erakundeek dituzten harremanetan euskara zenbatean erabiltzen den ikusi nahi izan da. Horretarako, kanpoko eta barneko harremanak aztertu dira eta horietan bereizketa egin da, hau da, harreman ofizialak (formalak) edo ez ofizialak (ez formalak) diren zehaztu da. Kasu bakoitzean zein hizkuntza erabiltzen den aztertu da.





B.H.Of: Barne harreman ofizialak  
 B.H.Ez.Of: Barne harreman ez ofizialak  
 K.H.Of.Herri: Herritarrekiko kanpo harreman ofizialak  
 K.H.Of.Admin: Beste administrazioekiko kanpo harreman ofizialak  
 K.H.Ez.Of: Kanpo harreman ez ofizialak

Grafikoan adierazi denaren arabera, zera esan daiteke:



- Orokorrean, **idatzizko harremanetan** altuagoa da euskararen erabilera ahozkoetan baino. Salbuespen dira erakunde barruko harreman ez ofizialak. Azken horietan, ahozkoan gehiago erabiltzen baita euskara idatzizkoan baino. Lankideen arteko harremanetan, beraz, ahozkoan gehiago erabiltzen da euskara maila idatzian baino.
- Euskara, batez ere, **idatzizko kanpo harreman ofizialetan** bermatzen da, **herritarrei eta beste administrazioei** zuzendutako idatzietan.
- Ahozkoan** baxuagoa da euskararen presentzia. Egoera guztietan antzerakoa da erabilera: %30-40 artean kokatzen da.

### 1.8.1 Telefono bidezko lehen hitza

Harremanekin jarraituz, galdetu egin da baita ere erakunde bakoitzean **zein hizkuntzatan hartzen den telefonoa**, hots, lehen hitza zein hizkuntzatan izaten den. Grafikoan adierazten den moduan, erakundeen ia %70ek telefonoa euskaraz hartzen duela adierazten du eta %40tan jarraitzen da elkarrizketa euskaraz. Dena dela, aipatu behar da, harremana jarraitzeko erabiltzen den hizkuntza ez dagoela erakundearen esku soilik, deitzen duenak ere baldintzatzen baitu hizkuntza aukera.



Beste kasuetan bezala badira aldeak taldetik taldera, esate baterako: Arartekoan eta Eusko Legebiltzarrean %100ean hartzen da euskaraz telefonoa; udal eta mankomunitateetan ere sarri hartzen da telefonoa euskaraz: %80 inguruan; eta udalak bakarrik aintzat hartzen baditugu, berriz, aldea dago **lurraldearen** eta **egoera soziolinguistikoaren** arabera: Gipuzkoan hartzen da batez ere euskaraz telefonoa, derrigortasun indizerik altueneko udaletan. **Biztanleriak** ez du eragin handirik arlo honetan, eta udal handi nahiz txikiek diote %50 inguruan hartzen dutela telefonoa euskaraz.




Telefonoz zein hizkuntzatan jarraitzen den adierazterakoan, joera orokorrak berdin mantentzen dira lurralde guztietan eta derrigortasun indize guztietan, nahiz eta ehunekoak jaitsi egiten diren.

## 1.9 KANPOKO HIZKUNTZA ESKAERA

Kanpoko hizkuntza eskaera aztertzeak ere garrantzia du, izan ere, langileak erabiltzen duen hizkuntza, neurri batean behintzat, kanpoko eskariak baldintzatua egon baitaiteke.

Azterketa hau burutzeko hiru eskari mota hartu dira kontuan: erakundeko beste atalek egindako eskaria, beste administrazioena eta herritarrek egindakoa.

Galdera honetan, erantzun ugari hutsik jaso dira. Kasu askotan, zaila gertatzen da eskari maila zenbatekoa den estimatzea neurketa zehatz bat egiten ez bada eta esan beharra dago jasotako erantzunik gehienak estimazioetan oinarrituta daudela eta ez datu bilketa batean. Hori horrela, %30ek hutsik utzi du galdera. Erantzun dutenen artean, emaitza hurrengoa izan da:



Orokorrean, kontuan hartuta EAEko 15 urtetik gorako euskaldunen kopurua %29,16koa dela, ondoriozta daiteke euskaldunen ehuneko handi bat euskaraz zuzentzen zaiola Administrazioari.

## 1.10 ITZULPENAK


Lehenengo eta behin galdera honek jaso duen erantzun urria aipatu beharra dago: %27k bakarrik erantzun du.

Galdetegian jaso diren erantzunen arabera, orokorrean, sortutako testuen %66 itzuli egiten da.

Jasotako datuen arabera eta kasurik gehienetan pertzepzioetan oinarritutako datuak direla kontuan hartuta, udalen kasuan, Bizkaia da itzulpen gehien egiten dituen lurraldea, sortzen diren testuen %54 itzuli egiten da. Ehuneko hau, %44koa da Gipuzkoan (lehen aipatu dugu probintzia honetan euskarazko sorkuntza altuagoa dela) eta Araban berriz, %21ekoa.

Biztanleriari dagokionean, udal handiek gehiago itzultzen dute udal txikiek baino (azken hauetan aipatu da baita ere euskarazko sorkuntza altuagoa dela) eta derrigortasun indize altua dutenek ere gehiago baxua dutenek baino, lehen horietan euskarazko eskaria bera ere altuagoa baita eta euskaraz kaleratzen diren dokumentuak ere gehiago baitira.


Egiten diren itzulpenak gaztelaniatik euskarara egiten dira ia gehienetan, beraz, sortze lana gaztelaniaz da. Garbi dago beraz, oraindik euskarazko testuak argitaratzen badira ere, lan hizkuntzak gaztelania izaten jarraitzen duela kasu gehienetan.




### 1.11 EUSKARA PLANIK DEFINITU EZ DENEAN

Lehen adierazi den moduan, erakunde batzuek erabilera plana egin duten arren, badira oraindik ere planik ez duten erakundeak, hain zuzen ere, %45ek adierazi du planik ez duela. Erakunde horiei horretarako arrazoiaren gainean galdetu zaie.

Lehenik eta behin, euskararen erabilera plan bat definitzeko saiakerarik inoiz egin ote den galdetu zaie. Eta %24k noizbait saiatu dela adierazi du. Erdiek inguru ez dute inoiz saiakerarik egin.



Saiakera egin arren, batzuetan planek ez dute aurrera egin izan, eta arrazoiaren artean beste lehentasun batzuk izatea eta beharrik ez ikustea aipatu dira gehien.



“Besterik” erantzun dutenen artean ere arrazoi ezberdinak jaso dira:

- Plana definitu zen baina jarraipenik ez zuen izan.
- Hainbatek bidean daudela adierazi dute: jada hasiak, onarpenaren zain...
- Arrazoi bat edo besterengatik (horretan ziharduen langilea joan...) etenda geratu diren planak ere badira.

## 1.12 GALDETEGIKO EMAITZEN LABURPENA

**Hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila altua da** eta derrigortasun data igarotako lanpostuetan diharduten langileen gehiengoak egiaztatu du dagokion hizkuntza eskakizuna edo altuagoa. Derrigortasun data igarota duten lanpostuen titularrak kontuan hartzen badira, %55,58k dagokion hizkuntza eskakizuna edota altuago bat egiaztatu du, eta beste %5,69k dagokion mailaren aurrekoa; ezer egiaztatu gabeak, berriz, %5,64 dira. Gainera, aipatu behar da lanpostuen ia %26,26 lanpostuaren jabe ez diren langileak beteta daudela eta orokorrean, kasu horietan langileak lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izaten duela. Bestalde, une honetan herri administrazio guztietan ari diren langile oro aintzat hartzen bada, ikusten da **euskararen ezagutza maila ere altua dela: ia %58koa**. Beraz, emaitzak positiboak dira.

- **Erakundeen erdiek** gutxi gorabehera dute **erabilera plana** definituta. Gainerakoen artean asko dira maila batean edo bestean, era egituratu batean eta plan baten barruan ez bada ere, euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartu dituztenak. Gipuzkoako udaletan egin dira erabilera plan gehien, batez ere, udalik handienetan. Udal txikietan (horietako gehienetan egoera soziolinguistikoa aldekoagoa da) baliabide arazoak daude askotan planak definitzeko eta batez ere, aurrera eramateko.
- Erabilera planak definitu badira ere, **jarraipen maila** ez da parekoa izan. Plana definitu dutenetatik erdiak egiten dio planari jarraipena. Batez ere, herri txikiak dira jarraipena egin ez dutenak. Askotan, baliabide eskasia aipatzen da jarraipen hori ez burutzeko.
- **Arduradun politikoek euskara maila**, batez beste, nahiko ona dela adierazi dute. Arduradun politikoek erdiek, euskaraz ulertu, hitz egin, irakurri eta idazteko gai direla esan dute. Dena dela, arduradun politikoek euskara maila neurtzeko ez dago egiaztatze sistemarik, beraz, balorazio hau iritzietan oinarrituta dago.

Ezagutza mailarik onena mankomunitate, udal eta Eusko Jaurlaritzan ematen da. Udalen kasuan, aldeak daude lurraldeka, egoera soziolinguistikoaren eta biztanleriaren arabera. Horrela, badirudi arduradun politikoek euskararen ezagutzak, ingurunearen ezaugarri

erantzuten diela eta Gipuzkoan, egoera soziolinguistiko aldekoenetan eta udal txikietan ematen da ezagutza mailarik altuena.

- **Hizkuntza paisaian** euskararen presentzia oso altua da. Tresneria da batez ere gabezia gehien dituen. Papelerian, orokorrean, nahiko egoera ona ematen da. Udal eta mankomunitate batzuek errotulazio eta papeleria euskara hutsean ere badute. Batez ere, Gipuzkoan eta errealitate soziolinguistiko aldekoenetan.
- Datuen arabera **tresna informatiko** ugari daude euskaraz erabilgarri, gutxi gorabehera aplikazio informatikoen %40. Dena dela, praktikan, kasu askotan, gaztelaniaz erabiltzen dira tresnok. Egoerarik hoberenean euskarazko erabilera %50 inguruan dabil.
- Kanpora begirako harremanetan erakundearen **hizkuntza irizpideak**, gutxi gorabehera, %50-60 artean daude definituta. Erakunde barrura begirakoak, ordea, kasu gehienetan, ezarri gabe daude. Gainera, irizpideak ezarrita egoteak ez du esan nahi irizpide horiek ezagutzen direnik eta are gutxiago erabiltzen direnik.
- Erakundeen **kanpo proiektzioan**, orokorrean, euskararen presentzia bermatuta dago. Aldizkarietan daude gabezia gehien eta oraindik orain %25 gaztelania hutsean argitaratzen da.
- Kanpo proiektzioan euskararen erabilera altua bada ere adierazi behar da **sortze hizkuntza**, batez ere, gaztelania dela. Normalki, itzulpenetara jotzen da eta %10-20 soilik sortzen da euskaraz. Orokorrean kanpo irudian euskara bermatzen bada ere, lan hizkuntzak gaztelania izaten jarraitzen du. Euskaraz sortzen dutenak, batez ere, udal eta mankomunitateak dira, Gipuzkoan kokatuta daudenak eta egoera soziolinguistikorik onena dutenak.
- **Erakundearen harremanetan** (kanpo/barne harremanak eta harreman ofizial/ez ofizialetan), euskara gehiago erabiltzen da idatziz ahoz baino.
  - Idatzizkoan, euskara, batez ere, kanpo harreman ofizialetan erabiltzen da, nagusiki, herritarrei eta beste administrazioei zuzendutako idatzietan.
  - Ahozkoan %30-40 artean.
  - Egoerarik onena udal eta mankomunitateetan ematen da. Mankomunitateen kasuan euskararen erabilera gaztelaniarena baino askoz altuagoa da bai ahoz eta bai idatziz.

- **Telefono bidezko harrera**, nagusiki euskaraz egiten da: Bizkaian eta Gipuzkoan esaterako %80; Araban, aldiz, %20 inguruan dago. Baina harremana euskaraz hasteak ez du bermatzen euskaraz jarraitzea.
- **Kanpoko eskariari dagokionez**, kontuan hartuta EAEko 15etik gorako euskaldunen kopurua %29,16koa dela, eskaria nahiko altua dela esan genezake. Batez ere, herritarrak dira euskarazko eskaria egiten dutenak eta %26 inguruan kokatzen da eskari kopurua.
- **Itzulpenen** presentzia altua da eta dokumentuak euskaraz helarazten badira ere, gaztelaniaz sortzen dira. Horrela, batez ere gaztelania da lan hizkuntza.
- **Udalen %45k ez du erabilera planik**, baina %24k saiakera egin du erabilera plana definitzeko erakundean. Planak bertan behera gelditzeko arrazoiaren artean, batez ere beste lehentasun batzuk izatea eta beharrik ez ikustea aipatu dira.
  - **Saiakerarik egin ez dutenen artean (%53)**, jadanik euskaraz lan egitea azpimarratu da batez ere plana ez definitzeko arrazoiaren artean.
  - Saiakerarik egin ez dutenetatik %22k badu **asmoa epe motzean erabilera plan bat definitzeko**.

## 1.13 GALDETEGIAREN ARABERAKO EGUNGO EGOERAREN BALORAZIOA

Bigarren plangintzalditik aurrera, hau da, 86/1997 Dekretua indarrean jarri zenetik, euskararen erabilera sustatzea izan da helbururik nagusia. Ezagutzari dagokionez, azken urteetan aurrerapen handia egin da. Horrela, **derrigortasun data igaro zaien langile gehienek dagokien hizkuntza eskakizuna edo altuagoa egiaztatua dute jadanik**. Egia da oraindik badela ehuneko %5,64 nahiz eta data igarota izan inongo hizkuntza eskakizunik egiaztatu ez duena, baina orokorrean esan daiteke hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila ona dela. Dena dela, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeak ez du erabilera bermatzen, eta ez erabiltzeak berak galarazten du mailari eustea. Horrek, jakina, eragina du erakundeetan euskararen erabilera planak ezartzerakoan.

**Erabilera planek erantzun ona** izan dute erakundeetan eta **nahikoa hedatu dira**. Gogoan izatea komeni da azken hamarkadan emandako aldaketa. Oraindik, noski, badira plana egin gabeko erakundeak, baina horietatik ehuneko altu batek azaldu du asmoa baduela epe laburrean egiteko. Batez ere, udalerririk txikiak dira, hain zuzen ere baliabide gutxien dituztenak, plana definitu gabe dutenak; eta, kasu askotan, lehendik ere euskaraz jarduten dutenak dira, bai, behintzat, ahozkoan. Gainera, kontuan izan behar, erabilera planik izan ez arren, hartu direla euskararen erabilera sustatzeko neurriak, alegia, askotan normalizazio ekintzak aurrera eramaten dira nahiz eta plan egituratu baten barnean ez izan. Beraz, orokorrean, esan daiteke erabilera planen erantzun maila ona dela.

Euskara planak definitu dira, bai; hala ere, **jarraipena erabat bermatu gabe dago**. Erakunde guztiek ez diote planari jarraipenik egin. Gehienek baliabiderik ezari egozten diote jarraipena egin ezina; eta batez ere, udal txikiak nagusitzen dira. Lan handia egin da erabilera planak definitzen, eta orain arte egindako lana benetan eraginkorra izan dadin, lehentasunezkoa izango da jarraipenari heltzea.

Erakundearen inguruko **errealitate soziolinguistikoa nolakoa, halakoa izango da bertako euskararen erabilera**, alegia, egoera soziolinguistikoa aldekoa duten entitateetan emaitzak oso onak izan dira. Beraz, badirudi egoera soziolinguistikoari lotua dagoela euskararen erabilera. Azterketak erakusten digu parametro gehienetan Gipuzkoan erabiltzen dela gehien euskara, udalik txikienetan eta derrigortasun indizerik altuenetan. Bizkaian erabilera maila Gipuzkoakoa baino baxuagoa da, eta, azkenik, Araban baxua.

Orokorrean, **erakundeen hizkuntza paisaian eta kanpo proiektzioan bermatua dago euskararen erabilera**. Batez ere idatzizkoan. Baina, horrek ez du esan nahi euskara lan hizkuntza denik, izan ere, itzulpenetara jotzen da askotan euskarazko hedapen hori bermatzeko. Itzulpenez ari garela, esan behar dugu itzulpen kopuruan eragina dutela bai egoera soziolinguistikoak eta baita udalen tamainak ere. Era berean, azpimarratzekoa iruditzen zaigu kanpora begirako harremanetan euskararen erabilera nahiko altua bada ere, barne harremanetan gaztelania dela nagusi. Horretan zerkusia izango du, seguruena, erakunde gehienek kanpora begirako harreman ofiziala lehenetsi izanak. Ahozkoa aintzat hartzen bada, baxuagoa da euskararen erabilera. Horretan, beste behin, nabaria da egoera soziolinguistikoaren eragina.

## **2. ATALA: EUSKARAREN ERABILERAREN BALORAZIOA EAE-KO HERRI ADMINISTRAZIOETAN**

Sarrerako metodologia eskeman agintzen zen bezala, hainbat erakundetako euskara teknikari eta aditu elkarrizketatu dira galdetegian jasotako emaitzak baloratzeko. Era berean, hainbat lan talde osatu eta jarri dira lanean galdetegian jasotako emaitzak baloratzeaz gain, administrazioetan, orokorrean, euskararen erabilera planak definitzeko, praktikara eramateko eta euskara lan hizkuntza bihurtzeko dauden zailtasunak baloratzeko. Honako hiru lan taldeak sortu dira: langileen lan taldea (lurraldeka), euskara teknikarien lan taldea eta politikariena. Azken talde honetan azpimarratzekoa da alderdi askotako politikoei hartu dutela parte eta egin dituztela euren ekarpenak. Eta ondoren, prozesu horretan guztian jasotako balorazio eta ekarpenak oinarri direla, AMIA matrize bat gauzatu da, alegia, **A**ukera, **M**ehatxu, **I**ndargune eta **A**huleziak jarri dira elkarren ondoan.

## 2.1 AMIA MATRIZEA

Aurreko puntuetan aztertu diren aspektu positibo eta negatiboak hurrengo AMIA matrizean laburbiltzen dira.

Ahuleziak	Indarguneak
<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Gaur egun oraindik bada langileen ehuneko bat dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez duena, nahiz eta derrigortasun data igarota izan.</li> <li>➤ Hizkuntza eskakizunen bat egiaztatu duten hainbatentzat zail da mailari eustea. Eta, zenbaitetan, ezarrita dauden hizkuntza eskakizunak ez dira nahikoa euskaraz jarduteko.</li> <li>➤ Gaur egun langile guztiak ez dira lanpostuak eskatzen duen mailarekin sartzten Administrazioan. Zail gertatzen da zenbait lanpostu mota hornitzea, batez ere teknikoak (arkitektoak, ingeniariak, osasun langileak,...).</li> <li>➤ Erakunde askok finkatu gabe ditu oraindik erabilerari buruzko hizkuntza irizpideak, eta ezarrita daudenean ere, askotan, ez dira ezagutzen.</li> <li>➤ Euskararen erabilera planak euskara teknikariaren eskuetan uzten dira, oro har. Zeharkako gaitzat (transbersaltzat) hartzeko premia dago.</li> <li>➤ AEBEMET metodologiak malguago beharko luke, egoera ezberdinetara hobeto egokitzeko. Lan jardunetan oinarritzen da eta jardunak oso aldakorrek dira.</li> <li>➤ Erabilera planen jarraipen maila hobetu beharra dago.</li> <li>➤ Euskararen erabilera borondatezkotzat hartzen da, nahiz eta horrela ez izateko badiren nahikoa tresna. Langileek gaitz gisa hartzen dute.</li> <li>➤ Euskara, orokorrean, ez da langileen lan hizkuntza; elebitasuna bermatzen da idatzian, baina itzulpena erabilia.</li> <li>➤ Erakunde barrura begirako harremanetan, batez ere, ahozkoetan, gaztelania da nagusi. Lan giroa euskalduntzeko premia dago.</li> <li>➤ Zenbait erakunde eta administratuk eskaria euskaraz egitea kostu batekin lotzen du: atzerapena...</li> <li>➤ Euskararen erabilera normalizatzeko erabiltzen den diskurtsoa zaharkituta dago, ez dago komunikazio plan orokorrik.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Orokorrean, hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila altua da.</li> <li>➤ Hizkuntza eskubidea herritarrena da eta gero eta herritar gehiago jabetzen da horretaz. Ondorioz, handituz doa euskarazko arreta izan nahi dutenen kopurua eta exigentzia maila.</li> <li>➤ Erakundearen inguruko errealitate soziolinguistikoa nolakoa, halakoa izango da bertako euskararen erabilera. Horrela bada, derrigortasun indizerik altueneko erakundeetan euskararen erabilera oso altua da eta alderantziz.</li> <li>➤ Euskararen erabilera planek hedapen-maila ona izan dute. Erakundearen erdiek plan egituratua dute.</li> <li>➤ Erabilera planik ez duten erakunde gehienek, epe laburrean, plana definitzeko asmoa dute.</li> <li>➤ AEBEMET metodologiak harrera ona izan du eta balio izan du oinarri bat ezartzeko eta erakunde zehatz-mehatz ezagutzeko.</li> <li>➤ Erakunde gehienetan, hizkuntza paisaian eta kanpo proiektzioan bermatua dago euskararen presentzia, batez ere, idatzizkoan.</li> </ul>

Mehatxuak	Aukerak
<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izanda ere, ezagutza maila horri eusteko eta erabilera bermatzeko urrats gehiago egin beharra dago.</li> <li>➤ Administrazioko langileen mugikortasuna oso handia da, bereziki udal handietan.</li> <li>➤ Administrazioaren lehenetasuna lana ateratzea da, eta sarritan horri begiratzen dio bakarrik, hizkuntza bigarren mailan utzita.</li> <li>➤ 86/1997ko Dekretua labur geratu da egoerarik onenean dauden hainbat erakunderentzat; egokitzapenak beharko lituzke, eta zenbaitetan malgutasun gehiago.</li> <li>➤ Derrigortasun indize baxua duten erakundeetan zaila da euskarak gutxieneko presentzia izatea.</li> <li>➤ Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko helburua askotan instrumentala da soilik, hau da, promoziorako edo beste lanpostu batzuetara jotzeko erabiltzen da, hizkuntza eskakizuna eta erabilera behar bezala uztartzeke daude oraindik.</li> <li>➤ Administrazioan gero eta zerbitzu gehiago ateratzen dira kanpora. Erakundeek zailtasunak dituzte zerbitzu horietako hizkuntza irizpideak kontrolatzeko.</li> <li>➤ Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu ezberdinen baliokidetze eza. Horiek parekatzeko premia dago.</li> <li>➤ Euskalduntze alfabetatze sistema helduei zuzenduta dago oro har, eta ez da, berariaz, lanpostu bakoitzaren eskakizunetara egokitzen. Honekin batera, egiten den ezagutzaren ebaluazio sistema gramatikaren ezagutzan oinarritzen da batik bat, eta ez ditu aintzat hartzen beste hainbat gaitasun: komunikatzeko gaitasuna, progresioa, eta abar.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Euskaldunen ehunekoa nabarmen hazi da eta gero eta gehiago ari da hazten. Horrek eragina izango du bai eskari mailan eta baita Administrazioan beteko diren lanpostuetan ere.</li> <li>➤ Zenbait langile, batez ere jendaurreko lanpostuetan daudenak, gero eta sentsibilizatuago daude herritarrak dituen eskubideen gainean. Gero eta hobeto onartzen zaio herritarrari hizkuntza aukeratzeko eskubidea.</li> <li>➤ Azken bi hamarkadetan lortutakoa azpimarratzekoa izateaz gain, benetan baliagarria da etorkizuneko politikak bideratzeko. Esperientzia oso zabala da.</li> <li>➤ 86/1997ko Dekretua tresna baliagarria da marko orokor gisa herri administrazioetako erabilera planak arautzeko, nahiz eta egokitzapen batzuk beharko lituzkeen.</li> <li>➤ Euskara zerbitzuak jadanik sortuta daude eta bertan egiten den lana ondo egituratuta dago.</li> <li>➤ Inoiz baino baliabide gehiago daude, bai ekonomikoak, baita giza baliabideak ere.</li> <li>➤ Derrigortasun indize altuko udal eta mankomunitate batzuetan, euskararen erabilerari buruzko egoera oso ona da. Esperientzia aberatsa dute, eta proiektu horiek beste herri administrazioetarako akuilu izan daitezke.</li> </ul>

### **3. ATALA: ETORKIZUNERAKO LAN ILDOEN PROPOSAMENA**

Behin egungo egoeraren balorazio orokorra egin ondoren, lan talde ezberdinetan jasotako ekarpenetan oinarrituta, **etorkizunera begira** jarri eta hainbat lan ildo proposatuko dira. Uste dugu lan ildo hauen guztien inguruko gogoetak 2008an hasiko den IV. Plangintzaldiari begira kontuan hartzekoak izan daitezkeela.

#### **➤ EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO KOMUNIKAZIO PLAN OROKORRA**

Euskararen erabilera sustatzeko **komunikazioak** izan dezakeen garrantzia azpimarratu dute lan taldeetan. AMIA matrizean ere ahulezia gisa identifikatu da komunikazio plan orokorrik ez izatea; eta, beraz, etorkizunera begira garrantzitsua izan daiteke lan ildo hau.

Komunikazioa esaten denean, bi eratako komunikazio beharraz ari dira:

- **Gizartean oihartzuna izango duen komunikazio plan orokorra.** Komunikazio honen helburua bikoitza izan daiteke. Alde batetik, herritarra bereak dituen hizkuntza eskubideen gainean jabetzea; eta, bestetik, Administrazioako langileak ere euskararen erabileraren gainean sentsibilizatzea. Azken batean, euskarazko eskaria azaleratzea da helburua; eta orokorrean, gizartea bera euskararen erabileraren gainean sentsibilizatzea.

Era berean, komenigarritzat ikusten dute **euskara erabiltzearen aldeko** diskurtsoa jorratzea.

- **Erabilera planen gaineko komunikazio zehatza landu.** Bigarren komunikazio maila hau askoz ere zehatzagoa da, baina lehenengoa bezain garrantzitsua. Erakundeko erabilera plana izango da hedatu beharrekoa, bai erakundearen barruan eta baita erakunde horretara jo dezaketen administratuen artean ere. Erakundearen barruan bertan, askotan ez baitira behar bezala ezagutzen erabilera planaren helburuak, estrategiak eta egitekoak; normalean, planak eragindako langileak bai, hark jakingo du zertan den erabilera plana, baina komenigarritzat jo dute horren berri erakunde osora hedatzea. Eta, era berean, garrantzitsua da

herritarrek ere haren berri izan dezaten, euren Administrazioa jotzen dutenean argi izateko hizkuntzen erabilerari dagokionean zein aukera dituzten.

➤	<b>EZAGUTZA EZARPENA</b>	<b>ERABILERARA</b>	<b>BIDERATZEKO</b>	<b>MEKANISMOEN</b>
---	------------------------------	--------------------	--------------------	--------------------

Azken urteetan egoera asko hobetu bada ere, gaur egun, oraindik, tarte handia dago ezagutzaren eta erabileraren artean. Ukaezina da lan handia egin dela ezagutza bermatzeko, eta ondorioek hala erakusten dute: hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila altua izan da. Hala ere, ezagutzak ez dakar berarekin erabilera, eta arlo horri heldu egin behar zaio. Hori horrela, **etorkizunera begira ezagutzatik erabilerara benetako jauzia egin beharra dago.**

Horretarako, oinarrietako bat **hizkuntza irizpideak** izan daitezke (zerbitzu hizkuntza denean nola jokatu, lan hizkuntza denean nola, kontratazioetan zer izan kontuan...). Izan ere, erakunde batean euskararen erabilera normalizatzeko lehen urratsetako bat hizkuntza irizpideak definitzea da, bai erakunde mailan eta baita lanpostu bakoitzean ere.

Erakunde batzuetan definituta daude dagoeneko, baina ez dira beti ezagutzen erakunde guztian. Beraz, irizpideak finkatzea bezain garrantzitsua izango da horien hedapena erakundeetan.

Aurrera begira, gainera, zaindu egin beharko da ezartzen diren hizkuntza irizpide horiek betetzen ote diren, alegia, jarraipen mekanismoak ere aztertu beharko dira.

Kontuan hartu beharreko irizpideen artean bada bat zeresan franko eman duena: **itzulpen politika**. Diagnosian aipatu den moduan, gaur egun, itzulpena da, besteak beste, hainbat dokumentu euskaraz kaleratzea bermatzen duena. Etorkizunera begira, erakunde bakoitzak politika horren gaineko hausnarketa egin beharko luke. Izan ere, helburuak, apurka-apurka bada ere, itzulpen kopurua gutxitzea beharko du izan, **euskaraz sortzea**, eta era horretara euskara lan hizkuntza bihurtzea Administrazioaren esparruan behintzat.

Esan bezala, erakunde bakoitzak aztertu beharko lituzke aukerak, baina, agian, ez litzateke derrigorrezkoa izan beharko dokumentazio guztia beti bi

hizkuntzetan kaleratzea; agian, beste aukera batzuk ere egon daitezke; zeresanik ez, betiere kontuan izanda herritarren hizkuntza eskubideak. Hala ere, erabaki horrek, eta dagoeneko esana dago, **erakunde bakoitzeko hausnarketa** eskatzen du, eta hori da, hain zuzen ere, garrantzitsua etorkizunera begira: itzulpen politikaren gaineko hausnarketa.

Zenbaitek proposatzen du euskararen **erabilera** eta **lan hizkuntza** uztartzea, eta hala beharko luke gainera; izan ere, sarriegi lotzen baita erabilera zerbitzu hizkuntza edo harrera hizkuntzarekin bakarrik, eta ahaztu egiten da euskarak lan hizkuntza ere izan beharko lukeela.

**Langileak gaitu beharra azpimarratu dute lan taldeetan**, euskaraz lanean has daitezten: ikastaroak antolatu; trebakuntza saioak, alegia, laneko zereginen lotutako trebatze berezitua; etengabeko prestakuntza erakargarria aurkeztu euskaraz...

**Baliabideak** ere premiazko zat jotzen dituzte, langileen esku jar daitezkeen baliabideak: euskara erabiltzen has daitezkeen ezerezetik abiatu gabe. Bi eratako baliabideak aipatu izan dira: alde batetik, materialak, esate baterako: idazki ereduak datu basea, zerrenda terminologikoak, on line dauden materialei buruzko informazioa, aplikazio informatikoak euskaraz; eta bestetik, giza baliabideak: euskaraz lanean ari direnean zalantzak argitzeko hizkuntza aholkularitza eskainiko dutenak.

Ezagutzatik erabilera jausi egite horretan, komenigarritzat jotzen dute **indarrak metatzea**, alferrik galdu ez daitezkeen; alegia, lehentasunak ezarri, eta hitzarmenen bidez-edo euskarazko gune edo komunikazioaren alde egin (Administrazio barruan, administrazioen artean, eta herritarrekiko harremanetan); jakina, betiere gogoan izanda herritarrena dela Administrazioarekin jarduteko hizkuntza hautatzeko eskubidea.

➤ **HIZKUNTZA ESKAKIZUNEN ETA EGIAZTATZE SISTEMARI BURUZKO GOGOETA**

Diagnosian zehar hobetzeko hainbat arlo identifikatu dira hizkuntza eskakizunen sistemaren gainean eta eskakizun horiek egiaztatzeko prozesuaren gainean. Ondorioz, hobetu beharreko arlo dezente proposatu dituzte lan taldeetan.

Alde batetik, **sistema bera**. Ikusten dute hamazazpi urteko ibilbidearen ondoren, eta kontuan hartuz Administrazioako lanpostuen funtzioetan aldaketa ugari eman dela, komenigarria litzatekeela, zenbait kasutan, hizkuntza eskakizunen izendapena berraztertzea.

Nabarmentzen dute, batetik, lehen hizkuntza eskakizunaren maila oso baxua dela eta egunerokoan erabili ezean berehala galtzen dela; eta, bestetik, nabarmentzen dute laugarren hizkuntza eskakizunak erabilerari lotu-lotua beharko lukeela.

Prestakuntza arlora jotzen bada, sarritan aipatu dute euskaltegietako prestakuntza orokorra soilik ez dela nahikoa euskaraz lan egiteko Administrazioan. Beste zerbaiten premia ikusten dute lanera jauzi egiteko, alegia, **berariazko prestakuntza** aztertzea, nolabait, administrazio hizkera, idazkiak, terminologia... landuko dituen.

**Egiaztapen sistema** dela-eta, badira hiruzpalau gai behintzat sarritan agertu direnak.

Bat: **berariazko prestakuntza eta egiaztapena lotu** beharra. Prestakuntza sistema aldatzen bada, egiaztatze sistema aldatu beharra etorriko da; izan ere, lotura hori bermatu egin beharko litzateke; gogoan hartuta Administrazioan gaitasuna aitortzen dela, hain zuzen ere, euskaraz lan egiten hasteko.

Bi: **egiaztapen sistemaren inguruan** aipatu dute gramatika-ezagutza neurtzeaz gain, ez ote zaion erreparatu behar ere laneko funtzioak euskaraz betetzeko beharrezko den komunikazio gaitasunari (ahozkoa zein idatzizkoa).

Hiru: badira hizkuntza eskakizun batzuk Administrazioetik kanpo egiaztatu ezin direnak, esate baterako **laugarren hizkuntza eskakizuna**. Eta horren aurrean, zenbaitek ondoko hau proposatzen du: Administrazioetik kanpo

dagoen jendeari frogetan parte hartzeko aukera ematea. Era berean, adierazten da laugarren hizkuntza eskakizun hori etengabeko prestakuntzarekin lotu beharko litzatekeela, eta, gainera, zalantzatan jartzen da Administrazioan sartzeko egiaztatu behar izate hori.

Lau: dagoeneko esanda dago, baina euskara gaitasuna derrigorrean egiaztatu behar horrek zeresan asko sortu du lan taldeetan, eta honelakoak azpimarratu dituzte: "Ulergaitza da Euskal Filologian lizentziaduna izanda edota unibertsitatean euskaraz ikasitakoa izanda, hala eta guztiz ere, hizkuntza gaitasuna bermatu behar izatea"; edota honelakoak: " Ulertezina egiten da euskalduna izan eta hori frogatu beharra izatea; zer gertatuko litzateke gaztelania hutsezko lanpostuetan hizkuntza azterketa eskatuez gero?". Gainera horri gehitzen zaio gaur egun **euskararen ezagutza egiaztatzen duten agiri ezberdinak daudela**, eta **baliokidetzea** premiazkoa dela erakunde ezberdinen artean irizpideak homogeneousagoak izan daitezen eta herritar guztien aukerak eta baldintzak berdindu daitezen.

Lan taldeetako proposamen horiek guztiak kontuan izanda, bistan da **hizkuntza eskakizunen sistemaren gainean gogoeta egin beharko litzatekeela**.

#### ➤ **86/1997 DEKRETUAREN AZTERKETA ETA EGOKITZAPENA**

Diagnosian zehar garbi geratu da 86/1997 Dekretua garrantzitsua dela marko orokor eta oinarri gisa, baina, era berean, zenbaitek egokitzapenak egitea proposatu du.

Lehenik eta behin, Dekretuari malgutasun eza egozten zaio zenbait puntutan. Egoerarik onenean dauden zenbait erakundek Dekretua labur geratu zaiela adierazi dute. Aldiz, hain egoera ona ez dutenezkat oraindik badu ibilbidea. Gaur egun, Dekretua berdina da erakunde guztientzako (egoera soziolinguistikoa oinarri hartuta), baina, bila daiteke bidea erakunde bakoitzera hobeto egokituko den Dekretua zehazteko. Horretarako, noski, **beharrezkoa izango da sistemari malgutasuna ematea**.

Dekretuari lotuta, zenbaitek **derrigortasun indizearen egokitasuna** aztertzea proposatu dute. Diagnosian aipatu den moduan, derrigortasun indizea baxua den guneetan, agian, beste era batera jokatu beharra dago, ez baitago zenbaitetan lanpostu bakar batean ere derrigortasuna jartzeko aukerarik.

Eta badira beste muturrean dauden guneak ere, alegia, beste zenbait erakundetan badaude aukerak derrigortasun indizetik gora jotzeko. Eta erakundeak benetan derrigortasun indize altuago batean kokatzeko aukera badu, eta hori erakundeak berak horrela onartzen badu, argi dago **derrigortasun indizeak ez lukeela horretarako muga izan beharko.**

Dekretuaren **eremua zabaltzea** ere proposatzen da, eta horretarako bidea ere aipatu dute, alegia, herri administrazioek burutzen dituzten kontratu administratiboetan Dekretuaren neurriko hizkuntza helburuak eta irizpideak kontuan hartzea.

➤ **ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA AHALBIDERATU. ESPERIENTZIAK ELKAR TRUKATZEKO GUNEAK ANTOLATU**

Euskararen erabilera planak kudeatzen dituztenek asko nabarmendu dute **euskararen erabileraren normalizazio arloan koordinazio eta elkarlanerako gune baten beharra**. Askotan, erakunde bateko esperientzia erabilgarria izan daiteke beste erakunde batean ere, eta esperientzia hori baliagarria izateko, beharrezkoa da **harreman sare** bat izatea: zalantzak argitzeko, formazioa bideratzeko, materiala eta esperientzia berriak trukatzeko.

Gune horretan **partaidetza eta eraginkortasuna uztartu** beharko lirateke. EAEko herri administrazioa erakunde ugarik osatzen dute, eta sortzen den gune horretan ahots guztiak ordezkaturata egotea garrantzitsua bada ere, derrigorrez, iraungo badu, gune eraginkorra izan beharko du. Horrek lurraldekako gune baten sorrera eska dezake eta lurralde bakoitzaren ordezkariak EAE mailan. Behin eta berriz agertu diguten gaia izan da, eta etorkizunera begira aztertze modukoa.

**EUSKARAREN ERABILERARAKO METODOLOGIA ETA TRESNAK LANDU. BEREZIKI, JARRAIPENA EGITEKO TRESNAK**

Diagnosian zehar argi geratu da badirela zenbait muga metodologia eta tresna aldetik. Alde batetik, aipatu dute **AEBEMET metodologia** baliagarri izan dela oinarri bat ezartzeko, baina egokitu beharra dagoela, batez ere, malguago eta erabilgarriago egiteko. Erakunde handietan arazoak izan dituzte metodologia hori aplikatzeko, eta, beraz, **egokitzapenak beharko lituzke**.

Era berean, maiz azpimarratu da lan taldeetan **erabilera planak administrazio guztietan ezartzearen garrantzia**. Zeregin horretan lagungarria izango litzateke, gainera, metodologia tresna arin eta ongi diseinatu bat; eta, era berean, erabilera planak hedatzean, lagungarri izango litzateke, beharbada, normalkuntza teknikariak ugaritzea, eurak izaten baitira planen ardatz teknikoa erakundeetan.

Eta hedatu ostekoa ere maiz aipatu digute; alegia, erabilera planak hedatu bai, baina mekanismoren bat jorratu beharko dela ezartzen diren planen **jarraipena bermatzeko**. Erakunderik txikienetan ere badaude arazoak jarraipena egiteko. Horietan baliabide eskasia izaten da arazo. Eta lagungarri izan daiteke erabilera planen jarraipenerako berariazko tresnak sortzea. Horrek, jakina, metodologiaren beraren egokitzapena eskatuko du; izan ere, jarraipena egiteko beharrezkoa baita helburu neurgarriak zehaztea eta horiek neurtzeko adierazleak finkatzea.

**➤ HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAREN EGINKIZUN ETA HELBURUEN GAINEKO HAUSNARKETA EGIN BEHARRA**

Erakundeen hizkuntza normalizazioan Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak izango lituzkeen eginkizunen gainean ere iritzi dezente jaso dira.

Erakundearen tamainaren arabera, erantzunak desberdinak izan dira, premiak ere bai, jakina. Udalik txikienek **laguntza eta aholkularitza** eskatzen dute erabilera planak definitu eta ezartzeko. Uste dute Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak **lidergoa** izan beharko lukeela euskararen erabilera sustatzeko neurri orokorrak zehazterakoan, eta **hizkuntzaren erabileran irizpide orokorrak** ezarri eta **horiek betearazi** beharko lituzkeela. Era berean, uste dute erakundeen arteko **koordinazioa ere** sustatu beharko lukeela.

Erakunde handiagoetan, ordea, ez da horren argi ikusten Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin beharrekoa: **malgutasuna eskatzen dute erakunde bakoitzak bere bidea urra dezan**. Erakunde handietan baliabideak ere gehiago diren neurrian, autonomoagoak dira eta laguntasun premia txikiagoa sumatzen dute.

Azpimarratzekoa da, era berean, zenbait erakundek Eusko Jaurlaritzaren lidergoa aldarrikatzen duela euskararen erabilerak aurrera egin dezan Administrazioan: herri administrazioetako **eredu bilakatzea** eskatzen diote.

## **4. ATALA: IV. PLANGINTZALDIARI BEGIRA**

### **Euskara, Administrazioiko lan-hizkuntza "normala"**

Azken hamazazpi urteotan aurrera egin dugu nabarmen, baita hizkuntzen balorazioan ere. Garai hartan, oraindik ez zen hain "normala" euskara jakin beharra aldarrikatzea Administrazioan lan egiteko: zeresan eta tirabira franko sortzen zituen horrek; gaur egun, ostera, jakin-behar hori normaltasun handiagoz onartzen da. Izan ere, Auzitegi Konstituzionalak 1986an Euskararen Legearen gainean emandako epaiak berak ere egoki eta bidezkoztat jotzen du herri-administrazioetan jarduteko euskararen ezagutza aintzat hartzea, betebeharrak edo merezimendu gisa. Horri esker, Administrazio Orokorreko langileen hizkuntza gaitasuna erruz hobetu da: %60 inguruk egiaztatua du hizkuntza eskakizunen bat; hala eta guztiz ere, bada beste gauza bat oraindino askok "normal eta ohikotzat" hartzen ez duena: Administrazioan euskaraz ere lan egin daitekeela sinestea. Urte hauetan zehar ez da asmatu langileen hizkuntza gaitasuna eguneroko lanean neurri egokian islatzen; horren ondorioz, gaztelaniaz egiten da lan nagusiki. Hauxe, beraz, hemendik aitzina "normaldu" behar dena: Administrazioan euskara ere lan-hizkuntza izatea.

Eta nola lortu "normaltze" hori? Nola lortu bi lan-hizkuntzen arteko berdintasuna, eta ez berdintasun formala, eta are gutxiago itxura soileko berdintasuna? Plangintzarena bada bide bat, baina inola ere ezin pentsa daiteke planifikatze soilak eramango gaituela euskararen erabilera areagotzera: korrelazio hori ez da ezinbestekoa. Egia da plana behar dela, eta metodologia arina, eta baliabide ugari... Egia da hori guztia behar dela, baina ez da nahikoa. Euskara ere Administrazioiko lanerako hizkuntza bihurtuko bada, langileak euskaraz ere egin behar du lana. Eta horretarako zehaztu egin behar da zein lan-jardun gauzatzeko erabiliko den euskara lan-hizkuntza moduan, nola, norekin, noizko, eta, batez ere, zergatik. Horrez gain, langileen motibazioa indartu behar da, euskaraz lan egiteko lehen urratsak emateko, baita ere gaztelaniarekiko inertzia eten eta, arian-arian, euskaraz jarduten hasteko.

Horixe izango da, hain zuzen ere, IV. Plangintzaldiaren helburua: euskara ere lan-hizkuntza normala bilakatzea; esan nahi baita, bihar-etziko planen xedea ez da izango euskararen "presentzia" bermatzea, zeren hori, itzulpenaren makulua erabilita bada ere, dagoeneko ziurtatuta dago neurri handi batean; hurrengo plangintzaldiko helmuga izango da Administrazioan bi hizkuntzen erabileran berdintasunerantz pauso eraginkorrak ematea. Administrazio honek

zabaldu egin behar du bi hizkuntza ofizialak erabiltzearen aukera, betiere urratsez urrats eta eragile guztien adostasunaz. Eta une honetantxe eman daiteke urrats garrantzitsu hori, aurreko plangintzaldien bitartez ezagutza maila ona erdietsia den une honetan: izan direlako gara.

### **Langileak motibatu eta sentsibilizatu beharra**

Jakinekoa da helburu hori ez dela goizetik gauera lortuko; jakinekoa da inoiz egin gabeko lanetan hasteak deserosotasuna sor dezakeela, bai administrazioetan eta baita langileengan ere. Baina, erronka berri hau ez da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarena bakarrik, herri-administrazio guztiena baizik. Demokratikoa eta eraginkorra izan behar du burutu behar den prozesu honek: herritarren hizkuntza-aukera beti eta ororen gainetik errespetatu beharko du, herritarrei deserosotasunik eragin gabe errespetatu ere; eta, aldi berean, hizkuntza-aukera egiazkorantz pausoz pauso, etengabe, eramango gaituen prozesua izan behar du, alegia, euskararen erabilera benetan ahalbidetzeko eta bultzatzeko eraginkorrak izango diren neurriez gorpuzturiko prozesua. Egiazki, eta adostasunak ahalbidetzen duen ilusioz, egin daitekeena egin nahi da, ez gehiago; eta egiazki, eta adostasunak ematen duen indarraz, egin daitekeen guztia egin nahi da, ez gutxiago.

Euskarak ere lan-hizkuntza behar du izan. Horretarako, herri-administrazio bakoitzak ispiluaren aurrean jarri behar du bere burua, eta erabaki zeri heldu, modu errealistan baina baita autoexigentean ere. Administrazioek jabetu beharra daukate: ezin da aurrera egin deserosotasunak izango direla alde zuzenetik jakin gabe. Hala ere, ez da ezinezko helbururik ezarriko, eta ez goaz euskara hutsean funtzionatuko duen Administrazio baterantz, ez eta gutxiago ere. Argi dago honelako erronkei poliki-poliki eta akordioaren bidetik egin behar zaiela aurre; argi dago, era berean, administrazio bakoitzak erabakiko duela zein izango den bere planaren helmuga eta abiadura; baina gutxieneko batzuk jarri beharra dago: euskara lan-hizkuntza izango da lan-jardun batzuetan, hain zuzen ere, 86/1997 Dekretuan jasotako helburuak bete daitezten. Gutxienekoa izango da Dekretuak jasotzen duena; hortik gora egitea norberaren eta administrazio bakoitzaren borondatearen eta ahalbideen esku egongo da.

Eta langileei ere dei egiten zaie euren ekarpena egitera: euskara ere erabiltzera eguneroko zenbait lan eginkizunetan; izan ere, "pixka bat es mucho", bakoitzak apur bat eginda, denon artean asko egingo dugu. Eurak

dira, azken batean, hizkuntzen artean hautatzeko aukera eskaini behar dutenak. Hasieran zalantzatan ibiliko dira: gauza ote diren, asmatuko ote duten, beste hizkuntza ganoraz noizbait erabiliko ote duten... baina ez dago zertan, zeren jakina baita herri-langileek hizkuntza gaitasuna badutela, uste dutena baino dezente handiagoa gainera, hori jakina da; langileak eurak dira sinetsi eta euren buruarengan konfiantza hartu behar dutenak. Eta horretarako baliabideak jarriko dira, laguntasun eta bultzada txiki bat emanda, bistakoa delako gai direla lanari dagozkion zenbait zeregin euskaraz ere gauzatzeko.

### **Berariazko hizkuntza prestakuntza eta trebakuntza, oinarri**

Langileek eskuratuko dute hizkuntza, lana euskaraz egiten duten neurrian. Euskal gizartea urrats sendoak ematen ari da elebitasunaren bidetik; hemendik gutxira, hemendik oso gutxira gainera, gure seme-alabak euskaldunak izango dira; langileak euskalduntzeko premia nabarmen gutxituko da, eta euskara erabiltzearen beharra dezente handituko. Bada garaia, Administrazioak azken urteotan langileak euskalduntzen eta alfabetatzen egin duen esfortzuari etekin guztia ateratzeko. Administrazioko langile euskaldun gehienek hizkuntza prestakuntza orokorra jaso dute (alfabetatze edo euskalduntze klaseak), eta prestakuntza horri eta beren ahaleginari esker, hizkuntza gaitasun jakin bat eskuratu. Hizkuntza eskakizuna egiaztatu izanak langilearen gaitasuna ziurtatzen du; baina, badira beste hainbat eragile aintzat hartu beharrekoak: zenbat denbora igaro den hizkuntza eskakizuna egiaztatu zenetik orain arte; zenbateraino erabili den euskara tarte horretan, langilearen atxikimendua hizkuntzarekiko, euskara erabiltzeko motibazioa... Arrazoi bat edo bestea dela, kontua da zenbait langilek kezka bat baino gehiago izan dezaketela pentsatzen dutelako, euskara ikasi izan arren, gaur egun ez direla gauza beren lanpostuei dagozkien funtzio espezifikoak euskaraz egiteko. Eta horretara dator, hain zuzen ere, berariazko hizkuntza prestakuntza: irakaskuntza orokorretik laneko eguneroko errealitatera jauzi egiten laguntzeko. Hori dela eta, abian jarriko dira administrazio-hizkeraren gaineko ikastaroak, hizkera juridikoari buruzkoak edota idazki-ereduak lantzekoak.

Euskaraz ere hasi behar da lanean; arian-arian, apurka-apurka, helburu hori ez baita lortuko goizetik gauera. Horrenbestez, IV. Plangintzaldiari begira egoera irauli eta euskara ere erabiltzen hasiko gara: aurrekoaren amaieran ereindakoa hezurramituko dugu elkarren artean: langile gehiagok izango du

sarbide erabilera planetan, langile horien komunikazioek izango dute lehentasuna, berriazko hizkuntza prestakuntza eta trebakuntza eskainiko zaie langileei hautatutako zereginak euskaraz egiteko... Hori guztiori Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak oinarri eta helmuga harturik.

## **ERANSKINAK**

### **1. ERANSKINA: GALDETEGIA**

#### **SARRERAKO GALDERAK:**

- **Zure entitatean euskararen erabilera planik egin da?** BAI/EZ

(Erabilera plana aipatzen dugunean, erabilera plan egituratu bati buruz ari gara, hau da, diagnosa, helburuak, ekintzak eta abar definitzeari buruz. Seguruena administrazio guztiek egin duzue lan euskararen normalizazioan eta hainbat ekintza jarri dituzue martxan, baina atal honetan, egituratutako plan bati buruz ari gara).

- **Zein urtetan, lehenengo aldiz?**\_\_\_\_\_

(Plangintza egituratu bat egindako lehen urteari buruz ari gara).

- **AEBEMET metodologia sistema erabiliaz egin zen?** BAI/EZ

(AEBEMET metodologia Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak garatutako metodologia bat da administrazioan euskararen erabilera planak gauzatzeko. Metodologia hori erabili den edo ez jakin nahiko genuke).

- **Aurreko galderan ezetz erantzun baldin baduzu, adierazi ezazu zein metodologia erabili zen.**

- **Egiten al zaio jarraipenik?** BAI/EZ

(Urtez urte planaren jarraipenik egiten ote den jakin nahiko genuke, hau da, helburuen betetze maila aztertu, helburu berriak definitu, horren arabera ekintza plana zehaztu eta abar egiten ote den).

## **EGUNGO EGOERARI BURUZKO GALDERAK**

### **1. ARDURADUN POLITIKOEN EUSKARA MAILA:**

Adierazi arduradun politikoen euskararen ezagutza maila:

<p><i>Erantzun zutabe hau baloratzen ari zaren esparruan <b>arduradun politiko bat baino gehiago</b> dagoenean</i></p>	<p><i>Erantzun zutabe hau baloratzen ari zaren esparruan <b>arduradun politiko bakarra</b> dagoenean (1: ezer ez, 2: hitz batzuk, 3: zertxobait, 4: nahikoa/ongi, 5: ongi)</i></p>																				
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaraz <b>ulertzeko</b> gai dira politikoen % _____</li> <li>• Euskaraz <b>hitz egiteko</b> gai dira politikoen % _____</li> <li>• Euskaraz <b>irakurtzeko</b> gai dira politikoen % _____</li> <li>• Euskaraz <b>idazteko</b> gai dira politikoen % _____</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaraz <b>ulertzeko</b> gai da  <table border="1" style="display: inline-table; vertical-align: middle;"> <tr> <td style="width: 20px; height: 20px;">1</td> <td style="width: 20px; height: 20px;">2</td> <td style="width: 20px; height: 20px;">3</td> <td style="width: 20px; height: 20px;">4</td> <td style="width: 20px; height: 20px;">5</td> </tr> </table> </li> <li>• Euskaraz <b>hitz egiteko</b> gai da  <table border="1" style="display: inline-table; vertical-align: middle;"> <tr> <td style="width: 20px; height: 20px;">1</td> <td style="width: 20px; height: 20px;">2</td> <td style="width: 20px; height: 20px;">3</td> <td style="width: 20px; height: 20px;">4</td> <td style="width: 20px; height: 20px;">5</td> </tr> </table> </li> <li>• Euskaraz <b>irakurtzeko</b> gai da  <table border="1" style="display: inline-table; vertical-align: middle;"> <tr> <td style="width: 20px; height: 20px;">1</td> <td style="width: 20px; height: 20px;">2</td> <td style="width: 20px; height: 20px;">3</td> <td style="width: 20px; height: 20px;">4</td> <td style="width: 20px; height: 20px;">5</td> </tr> </table> </li> <li>• Euskaraz <b>idazteko</b> gai da  <table border="1" style="display: inline-table; vertical-align: middle;"> <tr> <td style="width: 20px; height: 20px;">1</td> <td style="width: 20px; height: 20px;">2</td> <td style="width: 20px; height: 20px;">3</td> <td style="width: 20px; height: 20px;">4</td> <td style="width: 20px; height: 20px;">5</td> </tr> </table> </li> </ul>	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5	1	2	3	4	5
1	2	3	4	5																	
1	2	3	4	5																	
1	2	3	4	5																	
1	2	3	4	5																	

### **2. LANGILEEN EUSKARA MAILA:**

Atal hau zure entitateak Eusko Jaurlaritzari bidalitako azken datuen arabera aztertuko da. Datu horiek zaharkituak badaude, jarri mesedez HPSrekin harremanetan lehen adierazi den telefono zenbakian.

### **3. HIZKUNTZA PAISAIA:**

- Esparru hauetan, zenbateraino erabiltzen dira hizkuntza ofizialak?

	<i>Euskaraz (%)</i>	<i>Gaztelaniaz (%)</i>	<i>Elebietan (%)</i>
Errotulazioa: paisaia, paretetako kartelak...			
Tresneria: fotokopiagailua, kafe makina, etab.			
Papeleria: gutunazalak, folioak, karpetak...			

**4. BALIABIDE INFORMATIKOAK:**

Aplikazio informatikoak guztira	Euskaraz erabilgarri daudenak guztira

- Euskaraz erabilgarri dauden aplikazio informatikoak zein hizkuntzatan erabiltzen dira nagusiki?

Euskaraz (%)	Gaztelaniaz (%)

**5. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK:**

- Hurrengo arloetan, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak finkatuta daude? Eta finkatuta badaude, zein da erabilera maila?

	Irizpideak finkatuta?			Irizpideak finkatu badira, zenbatean erabiltzen dira irizpide horiek?				
	BAI	EZ	Ez dagokigu	Beti	Gehienetan	Batzuetan	Gutxitan	Inoiz ez
Atal barneko erabilera-irizpideak								
Beste atalekiko erabilera-irizpideak								
Herritarrarekiko erabilera-irizpideak								
Beste administrazioekiko erabilera-irizpideak								
Langileen etengabeko prestakuntza								
Itzulpen-politika								
Erregistroa								
Web orria								
Kontratazioa								
Diru-laguntzak								
Argitalpenak								
Jendaurreko ekitaldiak (hitzaldiak, jardunaldiak...)								
Iragarpenak (prentsa-oharrak, iragarkiak...)								

## 6. KANPO PROIEKZIOA:

Kanpo proiektzioa duten hurrengo esparruetan zertan da hizkuntza ofizialen erabilera:

	Zein hizkuntzatan zabaldu dira?			Zein hizkuntzatan sortu dira?	
	<i>Euskara (%)</i>	<i>Gaztelania (%)</i>	<i>Elebietan (%)</i>	<i>Euskaraz sortu dira (%)</i>	<i>Itzuli egin dira (%)</i>
Argitaratzen diren aldizkari eta liburuak					
Web orriko edukiak					
Egiten diren iragarpenak: prentsa oharrak, iragarkiak, erantzungailuak, iragarki-taula eta abar.					

	Idatzizko komunikazioa			Ahozko komunikazioa		
	<i>Euskara (%)</i>	<i>Gaztelania (%)</i>	<i>Elebietan (%)</i>	<i>Euskara (%)</i>	<i>Gaztelania (%)</i>	<i>Elebietan (%)</i>
Jendaurreko ekitaldiak						

## 7. EGITEN DIREN LAN JARDUNAK:

Erabilera plana definituta baduzu, erantzun mesedez hurrengo galderari. Ez baduzu erabilera plana definituta, jarraitu hurrengo galderarekin.

- **Euskararen erabilera planean aztertu dira lan jardunak? BAI / EZ**

(Langileen lan jardunei buruz ari gara. Lan jarduna aipatzen denean langileen egiteko nagusiei buruz ari gara: idazten dituzten dokumentuak, aktak, ofizioak, ebazpenak, eskabideak eta abar. Hala nola langileen ahozko jardunak: elkarrizketak, leihatilako harrera, bilerak eta abar).

Aztertu badira, bete hurrengo taula:

Kopurua	Aztertu diren etatik zenbat dira ahozkoak eta zenbat idatzizkoak	Hizkuntzen erabilera lan jardun horietan		
		Eusk %	Gazt%	Elebi%
Zenbat lan jardun aztertu dira?	Idatzizkoen kop.			
	Ahozkoen kop.			

## 8. BARNE ETA KANPO HARREMANAK:

Zehaztu euskararen erabilera maila barne eta kanpo harreman ofizial eta ez ofizialetan, ahozko zein idatzizko komunikazioetan:

*(Barne harremanak izango dira administrazio bereko beste langileekiko harremanak. Aldiz, kanpo harremanak izango dira herritarra edota beste administrazioekiko harremanak).*

*(Ofizialak izango dira laneko harremanak, hau da, laneko gaiak sortarazten dituzten ahozko eta idatzizko harremanak. Aldiz ez ofizialak izango dira lankideekiko harremanak, hau da, lan gaietatik kanpoko harremanak).*

		EUSKARAREN ERABILERA MAILA	
		(%)	
		AHOZKOA	IDATZIZKOA
Barne harremanak	Ofizialak		
	Ez ofizialak		
Kanpo harremanak	Ofizialak (herritarrari zuzenduak)		
	Ofizialak (beste adm. bati zuzenduak)		
	Ez ofizialak		

- **Telefonoa** zein hizkuntzatan hartzen da? Zein da harrera hizkuntza?

Euskara (%)	Gaztelania (%)

- Eta zein da **harreman hizkuntza**? Hau da, zein hizkuntzatan jarraitzen da?

Euskara (%)	Gaztelania (%)

## 9. KANPO HIZKUNTZA ESKAERA:

- Erakundeek eta herritarrek haiekin euskaraz egiteko eskatzen dizuete?

	Eskaera	
	Bai %	Ez %
Zure erakundeko beste atalek		
Beste administrazioek		
Herritarrek		

**10. ITZULPENAK:**

- Sortutako testuetatik zenbat itzultzen dira? % \_\_\_\_\_  
Euskaratik gaztelaniara? % \_\_\_\_\_  
Gaztelaniatik euskarara? % \_\_\_\_\_
- Nork itzultzen ditu?

Langileak berak (%)	
Euskara teknikariak (%)	
Itzultzaileak (%)	
Itzulpen enpresa batek (%)	
Beste batek (%)	

Zure ustez, itzulpen horien kalitate maila egokia da?

Aukeratu X baten bitartez  
(0: Kalitate kaxkarra, 5: Kalitate egokia)

0	1	2	3	4	5

**11. LANA EUSKARAZ EGITEKO GAITASUNA:**

Hizkuntza dela-eta, euskaraz lan egiteko gaitasunari dagokion arazorik sortzen da? Zer-nolakoak?

X bidez adierazi

	Arazorik?	
	Bai	Ez
Gramatika		
Estiloa		
Terminologia		
Mintzamena		

Euskaraz lan egiterakoan zalantzarik sortzen denean, ba al dago nori galdetu edo nori aholkua eskatu?

Bai	Ez

Nori?

Zenbatean behin eskatzen zaion zehaztu:

Beti	Gehienetan	Batzuetan	Gutxitan	Inoiz ez

Ezagutzen al dituzue euskaraz lan egiteko on line eskaintzen diren baliabideak? Erabiltzen dira?

	Zenbatek ezagutzen dituzte %		Zenbatek erabiltzen dituzte %	
	Bai %	Ez%	Bai%	Ez%
Euskalterm				
Hiztegiak				
Duda-muda				
Xuxen				

## **GALDERA KUALITATIBOAK:**

Erabilera plana definitua baduzu erantzun, mesedez, hurrengo galderari, bestela, jarraitu aurrera:

- Euskararen erabilera plana **definitzerakoan** non aurkitu dituzu zailtasun gehien?

Erabilera plana definitua baduzu erantzun, mesedez, hurrengo galderari, bestela, jarraitu aurrera:

- Euskararen erabilera plana **ezartzerakoan** non aurkitu dituzu zailtasun gehien?

Erabilera plana definitua baduzu erantzun, mesedez, hurrengo galderari, bestela, jarraitu aurrera:

- **AEBEMET metodologia** erabili baduzu, egokia iruditu al zaizu zure entitatearen euskara plana definitzeko, kudeatzeko...? Zertan hobetu daiteke?

Hemendik aurrerako galderak, administrazio guztientzat luzatzen dira erabilera plana izan edo ez.

- Zure ustez, zein dira **administrazioek**, oro har, dituzten zailtasun nagusiak **euskara lan hizkuntza izan dadin?**
- Zure ustez, zein dira **zure administrazioak**, oro har, dituen zailtasun nagusiak **euskara lan hizkuntza izan dadin?**
- Zure ustez, zein dira **langileek**, oro har, dituzten zailtasun nagusiak **euskara lan hizkuntza izan dadin?**

- Ekarpenik egin nahi duzu euskara planari buruzko ondorengo alderdiei dagokienez?

### **1. Lanpostuei ezarritako hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun-data**

### **2. Hizkuntza eskakizuna lortzeko eskaintzen den prestakuntza**

### **3. Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko sistema**

### **4. Besterik**

### **ERABILERA PLANIK EZ BADUZU ERANTZUN, MESEDEZ, HURRENGO GALDEREI:**

- Saiakerarik egin da inoiz euskararen erabilera plana definitzeko?  
**BAI/EZ**

Egin bada,

- Noiz? \_\_\_\_\_
- Zergatik ez zen abian jarri?

*X batez adierazi arrazoiak*

Ez genuen baliabide nahikorik	
Beste lehentasun batzuk genituen	
Ez genuen beharrik ikusten	
Ez genekien nola landu. Ez genuen laguntzarik	
Beste bat:	

Ez bada saiakerarik egin,

- Zergatik?

*X batez adierazi arrazoiak*

Euskaraz lan egiten dugu	
Ez dugu baliabide nahikorik	
Beste lehentasun batzuk ditugu	
Ez dugu beharrik ikusten	
Ez dakigu nola landu. Ez dugu laguntzarik	
Beste bat:	

- Epe laburrean, euskararen erabilera planik definitzeko asmorik bada?  
**BAI/EZ**

Baiezkoa bada erantzuna:

- Noiz? \_\_\_\_\_
- AEBEMET metodologia ezagutzen da? **BAI/EZ**
- Erabiliko da? **BAI/EZ/EZ DAKIGU**

- Aurreko galderan ezetz erantzunez gero, **zer metodologia erabiliko da?**
- Edozein metodologia erabilita ere, euskara plana kanpo laguntzarekin egingo da? **BAI/EZ/EZ DAKIGU**

## 2. ERANSKINA: GALDETEGIA ERANTZUN DUTEN ERAKUNDEEN ZERRENDA

Taldea	Galdetegia erantzun dutenen zerrenda
Udalak eta hauen menpeko erakunde autonomoak	Aguraingo Udala
	Amurrioko Udala
	Añanako Udala
	Arabako Moretako Udala
	Aramaioko Udala
	Artziniegako Udala
	Asparrengo Udala
	Barrundiako Udala
	Bernedoko Udala
	Bilarko Udala
	Donemiliagako Udala
	Elburgo-Burgeluko Udala
	Erribera altako Udala
	Eskuernagako Udala
	Gasteizko Udala
	Gaubeako Udala
	Haranako Udala
	Iekorako Udala
	Iruña Okako Udala
	Iruraiz-Gaunako Udala
	Kanpezuko Udala
	Kripango Udala
	La Puebla de Ibarcako Udala
	Lagranko Udala
	Laguardiako Udala
	Lantarongo Udala
	Lantziegoko Udala
	Laudioko Udala
	Legutianoko Udala
	Lezako Udala
	Nabaridasko Udala
	Okondoko Udala
	Samaniegoko Udala
	Sopuertako Udala
	Urizarreko Udala
	Urkabustaizko Udala
	Zalduondoko Udala
	Zanbranako Udala
	Zuiako koadrila
	Abadiñoko Udala
Abanto-Zierbenako Udala	
Ajangizko Udala	
Alonsotegiko Udala	

Taldea	Galdetegia erantzun dutenen zerrenda
Udalak eta hauen menpeko erakunde autonomoak	Amorebieta-Etxanoko Udala
	Amorotoko Udala
	Arakaldoko Udala
	Areatzako Udala
	Arrankudiagako Udala
	Arratzuko Udala
	Arrazua-Ubarrundiako Udala
	Arrietako Udala
	Arrigorriagako Udala
	Artzentalesko Udala
	Atxondoko Udala
	Aulestiko Udala
	Balmasedako Udala
	Barrikako Udala
	Basauri
	Bediako Udala
	Berangoko Udala
	Berangoko Udala
	Bermeoko Udala
	Berriatuko Udala
	Berrizko Udala
	Bilboko Udala
	Busturiko Udala
	Derioko Udala
	Dimako Udala
	Durangoko Udala
	Eako Udala
	Elantxobeko Udala
	Elorrioko Udala
	Ereñoko Udala
	Ermuko Udala
	Errigoitiko Udala
	Etxebarriako Udala
	Etxebarriko Udala
	Foruako Udala
	Fruizko Udala
	Galdakaoko Udala
	Galdamesko Udala
	Gamiz-Fikako Udala
	Garaiko Udala
	Gautegiz Arteagako Udala
Gernika-Lumoko Udala	
Getxoko Udala	
Gizaburuagako Udala	
Gordexolako Udala	
Gorlizko Udala	

Taldea	Galdetegia erantzun dutenen zerrenda
Udalak eta hauen menpeko erakunde autonomoak	Gueñesko Udala
	Ibarrangeluko Udala
	Ispastergo Udala
	Iurretako Udala
	Izurtzako Udala
	Karrantzako Udala
	Kortezubiko Udala
	Lanestosako Udala
	Larrabetzuko Udala
	Laukizko Udala
	Leioako Udala
	Lekeitioko Udala
	Lemoako Udala
	Lemoizko Udala
	Lezamako Udala
	Mañariko Udala
	Markina-Xemeingo Udala
	Maruri-Jatabeko Udala
	Mendatako Udala
	Mendexako Udala
	Meñakako Udala
	Morgako Udala
	Mundakako Udala
	Mungiako Udala
	Munitibargo Udala
	Muruetako Udala
	Muskizko Udala
	Muxikako Udala
	Nabarnizko Udala
	Ondarroako Udala
	Orozkoko Udala
	Otxandioko Udala
	Plentziako Udala
	Santurtziko Udala
	Sondikako Udala
	Sopelanako Udala
	Sukarrietako Udala
	Trapagarango Udala
	Turtziozko Udala
	Ubideko Udala
Ugao-Miraballesko Udala	
Urdulizko Udala	
Urduñako Udala	
Zaldibar elizateko Udala	
Zallako Udala	
Zamudioko Udala	

Taldea	Galdetegia erantzun dutenen zerrenda
Udalak eta hauen menpeko erakunde autonomoak	Zeberioako Udala
	Abaltzisketako Udala
	Adunako Udala
	Aiako Udala
	Aizarnazabalgo Udala
	Albizturgo Udala
	Alegiako Udala
	Alkizako Udala
	Altzagako Udala
	Altzoko Udala
	Andoaingo Udala
	Anoetako Udala
	Antzuolako Udala
	Aramako Udala
	Aretxabaletako Udala
	Arrasateko Udala
	Asteasuko Udala
	Astigarragako Udala
	Ataungo Udala
	Azkoitiko Udala
	Azpeitiko Udala
	Baliarraingo Udala
	Beasaingo Udala
	Beizamako Udala
	Belauntzako Udala
	Berastegiko Udala
	Bergarako Udala
	Berrobiko Udala
	Bidegoiango Udala
	Debako Udala
	Donostiako Udala
	Eibarko Udala
	Elduaingo Udala
	Elgetako Udala
	Elgoibarko Udala
	Errenteriako Udala
	Errezilgo unibertsitateko Udala
	Eskoriatzako Udala
	Ezkio-Itsasoko Udala
	Gabiriako Udala
Gaintzako Udala	
Getariako Udala	
Hernaniko Udala	
Hernialdeko Udala	
Hondarribiko Udala	
Ibarrako Udala	

Taldea	Galdetegia erantzun dutenen zerrenda
Udalak eta hauen menpeko erakunde autonomoak	Idiazabalgo Udala
	Ikaztegiako Udala
	Irungo Udala
	Irurako Udala
	Itsasondoko Udala
	Larraulgo Udala
	Lasarte-Oriako Udala
	Lazkaoko Udala
	Leaburu-Txaramako Udala
	Legazpiko Udala
	Legorretako Udala
	Leintz Gatzagako Udala
	Lezoko Udala
	Lizartzako Udala
	Mallabiako Udala
	Mendaroko Udala
	Mutiloako Udala
	Mutrikuko Udala
	Oiarzungo Udala
	Olaberriko Udala
	Oñatiko Udala
	Ordiziako Udala
	Orendaingo Udala
	Orexako Udala
	Orioko Udala
	Ormaiztegiko Udala
	Pasaiaiko Udala
	Segurako Udala
	Sestaoko Udala
	Soraluzeko Udala
	Tolosako Udala
	Urnietako udal
	Urretxuko Udala
	Usurbilgo Udala
	Villabonako Udala
	Zaldibiako Udala
	Zarauzko Udala
	Zegamako Udala
	Zeraingo Udala
	Zestoako Udala
Zizurkilgo Udala	
Zumaiko Udala	
Zumarragako Udala	
2. Mankomunitate, partzuergo eta eskualde mailako erakundeak	Aguraingo kuadrila
	Añanako kuadrila
	Aiarako Eskualdea

Taldea	Galdetegia erantzun dutenen zerrenda
2. Mankomunitate, partzuergo eta eskualde mailako erakundeak	Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea
	Arabako Errioxako Urkidetza
	Arratiako Egoitza – Herri Erakunde Autonomoa
	Arratiako Udalen Mankomunitatea
	Bizkaiko Garraio Partzuergoa
	Bizkaiko ur partzuergoa
	Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Elkargoa
	Debarrena
	Debabe Udal Euskaltegien Mankomunitatea
	Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
	Enirio Aralarko Mankomunitatea
	Enkarterriko Mankomunitatea
	Enkarterriko Udal Euskaltegiko Mankomunitatea
	Gizarte Zerbitzuetako Mungialde Partzuergoa
	Lea Artibai Amankomunazgoa
	Lea Ibarreko Udal Mankomunazgoa
	Leintz Udal Euskaltegia Mankomunitatea
	Loatzo Udalerrien Mankomunitatea
	San Markoseko Mankomunitatea
	Sasieta Mankomunitatea
	Tolosaldeko Mankomunitatea
	Txorierruko Zerbitzuen Mankomunitatea
	Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea
Urola garaiko udal-elkartea	
Urola Kostako Udal Elkarte	
Urretxu-Zumarragako Udal Euskaltegia	
3. Foru Aldundiak eta Batzar Nagusiak	Arabako Batzar Nagusiak
	Arabako Foru Aldundia
	Bizkaiko Batzar Nagusiak
	Bizkaiko Foru Aldundia
	Gipuzkoako Batzar Nagusiak
	Gipuzkoako Foru Aldundia
4. Eusko Jaurlaritza eta menpeko erakunde autonomoak	Lehendakaritza
	Jaurlaritzaren Lehendakariordetza
	Ogasun eta Herri Administrazioa
	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza
	Herrizaingoa
	Industria, Merkataritza eta Turismoa
	Etxebizitza eta Gizarte Gaiak
	Osasuna
	Kultura
	Ingurumena eta Lurralde Antolamendua
	Garraio eta Herri Lana
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	
5. Arartekoa	Arartekoa

Taldea	Galdetegia erantzun dutenen zerrenda
6. Herri Kontuen Euskal Epaitegia	Herri Kontuen Euskal Epaitegia
7. Lan Harremanen Kontseilua	Lan Harremanen Kontseilua
8. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa	Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
9. Eusko Legebiltzarra	Eusko Legebiltzarra
10. Euskal Herriko Unibertsitatea	Euskal Herriko Unibertsitatea